

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Olibondoaren burla

LILURA ERAGITEA DA baratze bat sortzerakoan kontuan izan ohi dugun helburu nagusietakoa. Baratzea ez da soilik barazkitza. Geure baratzeetan barazkiekin batera sendabelarrak, loreak, fruitu arbolak, espeziak, landare mitikoak... izan izan dira. Baratzean etxeko premia guztiak asetzeko landareak elkarrekin bizi dira, baita lilura etiko edota estetiko soiltarako daudenak ere...

Lilura, ordea, norbanakoarena da eta baten-tzat lilura gozoa dena, beste batentzat sagardo mindua da. Gaur nik min dut. Min ikaragarria.

Izeba zenak bere gorputza ikerketarako eman zuen eta hil zenez geroztik Leioako Medikuntza Fakultatean izan da. Denbora bat igaro ondoren gorpuak erraustu eta unibertsitateko Arboretum-ean dagoen *Bizitzaren Basoa* deituriko eskulturari jasotzen dira. Ekintza xume honetan izan gara gaur senide batzuk, izebaren eta bera bezalako berrogeiren baten gorazarre. Hortxe piztu da puska batean utziko ez nauen mina. Basoa irudikatzen duen burdinazko eskulturaren erdi-erdian olibondo zahar bat landatu dute, *Olea europaea*. Mundu guztiko zuhaitzen bilduma izan nahi duen basoaren gailur gure kultura kolonizatuaren irudi nabarmenena jarri dute. Gure izaera atlantiarra etengabe zanpatzen duen olatu mediterraniarra eta ia guda guztien ama diren erlijioen, geurean



EHUK UTZIA


Bizitzaren Basoa eskultura, EHuren Leioako campusean.

eliza kristauaren eredu den olibondoa nagusi. Hagi-nak (*Taxus baccata*), haritzak (*Quercus robur*) edo Lizarrak (*Fraxinus excelsior*) behar lukeen tokian olibondoa. Izorrai! Gure kulturaren paisaiatz, gure etxearen premiez zer jakingo dute, noski, unibertsitatearen eskariz baratze hau diseinatu zuten Boriana Christova Dontcheva, Miguel Rodríguez Rivas, Peter Nicolov Dontchev eta Oscar Rubén Torres López jaun-andereek.

Ildo beretik, gaurko ekintza xumean harrera, emaielen aipamena, medikuntza ikasleen eskertza, departamentu buruaren hitzak... den-dena gaztelera hutsez izan da. Lau hitz ziztrin izan ezik. Irainaren ospakizuna izan da, non eta arrazoiaren, errespetuaren eta elkarbizitzaren habia omen den unibertsitatean. Etorkizun ederra... Beste izeba batek esaten duen eran: lotsagabeentzat mundua!

6

Sei egunez behin landare berri bat aurkitzen dute Amazonian. 1999 eta 2009 urteen artean 637 landare berri eta ia beste hainbeste animalia topatu dituzte. 6.700.000 km² ditu bederatzi estatuk osatzen duten Amazoniak: Venezuela, Bolivia, Brasil, Kolonbia, Ekuador, Guyana, Guayana Frantsesa, Surinam eta Peru. 320 aldiz Euskal Herriaren azalera duen oihan horretan munduko espezie ezagunen hamarretik bat bizi da.



WWW.GIZZETDAWSON.COM.BR